

AIURRI

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

Gabon giroan murgilduta

Data seinatuak dira familian eta lagunartean igarotzeko. Ekitaldi-sorta iragarri dute Andoainen eta Urnietan / 6-7

Urte zaharreko lasterketak

Abenduaren 31n lasterketa bana antolatuko da Andoainen eta Urnietan / 4-5

**Aukeran
Dantza Konpainiak
Argentinan eta
Uruguain egindako
biraren kontakizuna** / 10

**Kirol-emaitzak
eta sailkapenak
Aiurri.eus gunean,
partida amaitu
eta gutxira** / 13



Arropa eta osagarriak

Kale Nagusia, 6. Andoain. 943 591 224

Eguberri eta Urte berri on!!!



Imanol Goenaga, atzean Andoain duela. EAJ-PNV

"Andoainen politika egitera gatoz, modu eraikitzailean"

IMANOL GOENAGA EGIBAR ANDOAINGO EAJ-PNV ALDERDIKO BURUZAGIA EAJ-PNVk lehendakaritzako hautagai berria proposatu du, eta horrek zeresan handia eman du. Euskadiko eta Andoaingo politikaz jardun du, Aiurri astekariarekin

Jon Ander Ubeda ANDOAIN
Imanol, Euskadiko egoera politikoa interesgarria dela aitortu zenidan, aurreko batean, Andoaingo udal-txean ekitaldi publiko bat hastear zela.

Bai. Garaiak beti dira estrategikoak, baina ikusten dut momentu berezi batean gaudela. Gizartea aldatzen ari da, aldaketa oso inportanteak ematen ari dira. Politika gizarteari konponbidea

edo erantzunak emateko erreminta tresna bat den heinean, horregatik esaten dut interesgarria dela momentua. Gure populazio piramidalari begira, zahartzen ari da, gure ekonomia alda-

tzen ari da, aldaketa klimatiko bete-betean sartu gara, gure zaintza ereduaz jardun behar dugu... Transformazio asko ematen ari dira, eta esango nuke pandemiak geroztik azkarrago eramaten ari direla aldaketa horiek guztiak. Horrek behartzen du politikan aurrea hartzea eta orain arte baliagarri ziren klabe asko eraldatzera. Aldaketa, normalean, berrikuntza modura ulertuta, baikorra da niretzat. Horixe guztiagatik diot une interesgarria dela.

Eta baita aktore politiko berriak aurkeztu direlako. Besteak beste, Eusko Alderdi Jeltzaleak. Zure ustez, nola kudeatu da Urkulluren auzia?

Jende askori Eusko Alderdi Jeltzalearen barne prozesuak ulertzea kosta egiten zaio. Herri ordezkari izaten gara, normalean, alderdiak eskatzen digunean. Denontzat dago hasiera eta bukaera. Katebegi bat gara, belau-naldiz belaualdi ematen ari dena. Esku artean ditugun erronka berriei aurre egiteko gogoeta bat egin dago. Gure kasuan, uste dut, alderdia ez dagoela epe motzei begira, baizik eta epe ertain eta luzera. Estrategia bat abiarazi da, beste jomuga eta helmugen bila. Horretarako egokia izaten da belaualdi aldaketa bat egotea.

Urkulluren exekutiboaren ibilbideak oso indikadoreak onak ditu, halere, egin den lana ere ondo baloratzen da gizartean. Alderdiak datozen hamabost urteei begirako buruzagiak eta liderrak lehenetsi ditu. Gogoeta sakona dago atzean. Horrek ez du esan nahi orain arte egin denarekin apurtzea, baizik eta erronka berriei aurre egiteko jende berri bat edo belaualdi berri bat bilatzea.

Ez da ohikoa, publikoki, jeltzaleen artean hautagai kuttunen alde agertzea. Baita kritika modukoak agertzea ere. Kurioso iruditzen zait.

Ezagutza falta dela uste dut. Eusko Alderdi Jeltzalea da prozesu demokratiko eta parte hartzaileena duen alderdia. Oso prozesu luzea da, zeren eta hautaketa-prozesuan ditugu bi itzuli.

Prozesua irekitzen denean eztabaida ematen da, norberak bere lehentasunak ditu. Baten batek esango du emakumea izan behar duela, akaso. Bakoitzak bere lehentasunak izango ditu, baina nik uste dut eztabaida hori sanoa dela eta nik uste dut alderdi guztiek egin beharko lu-

ketela. Tamalez, normalean alderditan izaten da aurrez hartutako erabakia berrestea. Hori ikusten ari gara beste alderdi askotan.

Eusko legebiltzarraren funtzionamendua ondo ezagutzen duzu, bertan ari zarela lanean. EAJ-PNVk Pradales proposatu du. EH Bilduk Otxandiano. Gipuzkoarrentzat, bereziki, ez dira oso ezagunak ez bata eta ez bestea.

Nire kasuan, ñabardura bat. Eusko Jaurlearitzako exekutiban ari naiz lanean. Galderari erantzunez, esango nuke bi perfil berdintsu direla, ezta? Eta berriro noa hasieran egindako irakurketara. Uste dut bi alderditan oso antzeko irakurketa egin dugula. Momentu kritiko batean gaude, erronka berriei aurre egiteko. Patroi bereko bi pertsona dira, belaualdiz eta adinez parekoak. Gainera, biak, bizkaitarrak. Biak ere formazio tekniko zabala dutenak.

Nola bizi duzu zuk?

Lasaitasun osoz. Uste dut estrategia politikoa ezin dugula antolatu, diseinatu epe motzera begira, lau urteko etekin elektoralaren baitan. Hauteskunde ezberdin bakoitzean klabe ezberdin batzuk daude. Uste dut euskaldunok, euskal hiritarrok, gaitasuna badugula hauteskunde bakoitzean oso modu kritikoan erabakitzeke. Hauteskunde autonomikoen atarian ikusi behar da alderdi bakoitzak zer proiektu aurkezten duen, zein proposamen dituen eta horren baitan herritarrak gai izango dira aukeratzeko eurentzat zein den onena. Boterea herritarren esku dagoela esan ohi dut nik.

Etor gaitzen Andoainera. Neronek ikusi nuelako, jarraipena egin nuelako, esan dezaket kanpainan dena eman zenuela. Aldiz, emaitzak ez ziren onak izan. Zuretzat kontsolagarria da EAJren jaitziera orokorra izatea, lurralde osoan?

Ezagutzen nautenek badakite oso lehiakorra naizela. Egiten dudana guztia pasio handiarekin eta intentsitate handiarekin bizi dut. Hautagai aurkeztu nintzen horretarako prest nengoela sentitzen nuelako. Eman nuen onena, eman nezakeen onena. Uste dut proiektu sendoa bat, oso zehatza, landua aurkeztu genuela. Lantalde indartsuarekin.

Orokorrean, alderdiarentzat, maiatzeko gaizki joan zen eta olatu hark Andoain harrapatu zuen. Nik, halere, kirolaria iza-

nik, emaitza onartu nuen. Jakin behar baita irabazten eta galtzen. Irakurketa zintzoa eginez, gauza batzutan asmatuko nuen, beste askotan ziurrenik ez. Bi hilabetetan, hauteskunde kanpaina batean, ziurrenik ezin da iraultza edo eraldaketa nagusi bat lortu. Sinesten dut egunero lanean. Guretzako ez ziren emaitza onak izan eta andoaindarrek erabaki dute Andoaingo alkatetza eta lidergoa dagokiola EH Bilduri.

Maila pertsonalean, zer moduz zaudete?

Ondo. Ni ondo nago. Penaz, sinesten nuelako proiektu interesgarria genuela. Xehetasunez landu genuen programa, datozen hamar urtera begirako egitasmo zehatzekin. Plan asko genituen, bat-batean zapuztu direnak. Eta horrek sortzen du nolabaiteko frustrazioa, pena bat. Ez daukagu barku honen agintea, eta oposizioa rola betetzea dagokigu orain.

EAJ alkatetzan egon zenetik ia 40 urte pasa dira. Hemengo gobernanta alderdi sozialistaren edo ezker abertzalearen artean trukatu dira. Gu askotan ikusle huts izan gara, eta gure ahalmen eragina murrizta izan da.

Gure proiektu politikoa ulertzen dugu aberatsa eta baliagarria dela. Eguneroko jardun horretan gure ekarpenak egiten saiatzen gara eta bide horretan gobernu taldeak gure proiektu horiekin bat egiten baldin badu, ahalmena ematen diegu aurrera egiteko. Gu bidelagun izango gara. Andoainen politika egitera gatzoz, modu eraikitzailean.

Norbaitek pentsa dezake lau urte xextran, iskanbilan eman beharko genituzkeela. Guk ulertzen dugu Andoainen modu eraikitzaile batetik erantzun behar zaiela herritarren lehenetsune. Beraz, saiatuko gara Andoainen alde egiten diren proiektu eta ekimenak sustatzen. Izan daitezke gobernu taldearen ekimenekoak, baina hala ez denean oposiziotik gure ekarpenak egingo ditugu. Tamalez, abenduan gaudete eta oraindik aurrekontu zirriborro bat ere ez dugu izan, gehiengo osoa duen gobernu talde baten aldetik. Pena da, baina alkateak lehen aurrekontu zirriborroa EAJri helarazten dionean, alderdiak egingo du aurrekontuaren irakurketa zintzoa eta saiatuko da ekarpenak modu positiboan egiten.

Jakinik oposizioa garena eta gure ekimena oso mugatuta dagoela, baina gure prestutasuna badugu. Ahalegin hori genuen, adibidez, 2024ko ordenantza fiskaletan. Alkateak proposamena aurkeztu bezain laster harengana jo genuen. Eta ikusi dugu nola begi onez hartu eta hobetsi dituzten gure hainbat proposamen. Norabide horretan, gure babestuko ditugu halako erabakiak.

Zentzu horretan, haiek baino nabarmen leunagoak izaten ari gara. Aurreko agintaldian oso-oso oposizio gogorra egin ziguten, oso traketsa. Bidelagun izan beharrea, blokeo egoera bat estutu nahi izan zuten eta batzorde ezberdinetan ikusi genuen nola haien zatia inportanteagoa zela arerio politikoa zaunka, traba egitea.

Orain, kulturen edo enpleguan edo gobernatu dugun arlotan saiatzen ari gara bidelagun izaten, gobernantza berriari aukera eskainiz, denbora izan dezaten. Ikusiko dugu. Horrek ez du esan nahi gure pazientzia infinitua denik.

PSE-EE eta EAJ-PNV gobernakide izatetik oposizioa pasa zarete. Orain oso politika ezberdina egiten ari zarete.

Bi familia politiko ezberdin gara. 2019an ezberdinen arteko akordioaren baitan, Andoaingo blokeoa erabat gainditzeko eta konpromiso jakin batzuen baitan, akordioa egon zen. Ulertuta baikoitzak bere izaera politikoa zuela. Alderdi sozialistak orain jokatzeko du inoiz irabazi ez zuen hauteskunde batzuk galdu izan balitu bezala. Alderdi sozialistari gogoratu behar zaio gobernatu duela, EAJK babestu duela. Koalizioak matematika ariketa baten ostean ematen dira, baina badaude lidergoak eta nik uste dut alderdi sozialistak ez duela lidergorik ezarri Andoainen. Maiz, Maider Lainezen figura ez da lidergo figura bat izan.

Gurekiko oso mesfidatia izan da. Eta askotan freno bat, balazta bat. Ez gintuen ahalbidetu behar beste aurrera egitera. Izan da mesfidatia, eta askotan egon da tematuta adieraztera bera zela alkatea, argazkien bidez. Lidergotza garrantzitsua da udal administrazioan eta garrantzitsua da lantaldea izatea, talde lanean sinestea, delegatzen jakitea.

Hori esanda, gure argi daukagu zein den gure bidea. Izan behar du politika positiboan egitea, eta eraginkorra.

EH Bildu eta EAJ-PNVren artean beste sintonia bat, beste alderdi bat antzematen da orain. Ez zaizku iruditzen kalean jendeak hori eskatzen zuela?

Bai. EAJ-PNVk erakundeetan alderdi askorekin batera agindu du. Baita gure alderditik alden du zen EArekin ere. Ezberdinen arteko akordioak, berez, onak dira. Andoain abertzalea da, nagusiki. Badaude familia politiko oso markatuak. Euskalduna eta euskaltzalea da Andoain. Berriki, euskarari lotutako auzian eztabaida egon da eta alderdi sozialista entzun dugu. Antipodatan gaudete. Are gehiago, gauza batzuk entzutea mingarria zaigu.

Lasaiago ote gauden? Andoainen pasa ditugu urte asko, familia politiko horiek elkarri bizkarrara emanda. Bi familia politiko ezberdinak dira, eta gatazka oso gordinak izan ditugu.

Ezker abertzaleak badauka gaitasun bat, komeni zaionean, Andoainen kalea aztoratzekoa. Egin du askotan, desgaste politiko hutsa egiten ari dela jakinda. Horrek eragin du zubi asko apurtzea. Dena ez da zilegi politikan.

Aurreko lau urteak oso gogorrak izan ziren. Bapatean, gainera, gatazka ugari desagertu dira. Sorpresiboki. Politika modu eraikitzailean egitea da zubiak eraikitzea, eta kasu horretan lehenetsi zen zubiak apurtzea. Elkarbizitzari egin diezaiokogun oportazio handiena da familia politiko horiek elkarren artean hitz egiten hastea, adosten hastea eta akordioak bilatzea. Inportantea da gai izatea exijitzeko, adosteko. Zeren herritarrek, nik uste dut, kasu honetan askoz azkarrago doaz askotan. Bizikidetzaren mahaian ikusten ari gara hori. Askotan, eztabaida asko oso zaharkituak direla ikusten ari gara. Anakronikoak. Gizarteak, alor horretan, gainditu gaitu.

Non ikusiko zaitugu 2024an? Eta 2027an?

Konpromisoa dut Andoaingo herriarekin eta nire jardun politikoari eutsiko diot. Gaurkoz, bestalde, Eusko Jaurlaritzan Arantza Tapia sailburuarekin lanean ari naiz. Proiektu potolo eta interesgarri ezberdinak ditugu eskuartean.



Herme Gonzalez, PSE-EEko buruzagia Urnietan. AIURRI

Aktualitate politikoa hizpide, bi udalerrietako udal ordezkarien

Politika intereseko duen irakurlearentzat interes biziko asteak izaten ari dira, azken garaikoak. Espainiako Kongresuko presidentetza aukeratzeko orduan, hainbat alderdiren protagonismoa handia izan da. Bereziki, euskal alderdi abertzaleena. Sozialismoaren ikuspegia jaso du Aiurri, lehenik eta behin. Urriaren 29ko astekarian Urnietako sozialisten buru Herme Gonzalez elkarrizketatu zuen Aiurri. Datozen Aiurri astekaritan alderdi politiko ezberdinetako bozeramaileen elkarrizketak argitaratu emango dira.



Botoitxo berdeen bitartez albisteak entzuteko aukerasakatu daiteke. AIURRI

Irakurri ez ezik, entzun daitezke Aiurri.eus guneko albisteak

TOKIKOMen eskutik, webguneko edukiak kontsumitzeko aukera berria eskaintzen du Aiurri.eus guneak

Erredakzioa URNIETA

Nazioartean hiztun gehiago dituzten hizkuntzekin dagoeneko erabiltzen den teknologia ekarri dute euskarara, TOKIKOMek eta ELHUYARrek. Aste honetan hasita, Aiurri.eus webguneko albisteak irakurri ez ezik entzungai daude. Podcast-en garaietan, izango da erreportajeak

edo elkarrizketak entzuteko aukera baliatu nahi duena, adibidez, sukaldetan lanean ari den bitartean. Irakurtzeko zailtasunak izan ditzakenera begira ere, aukera berria abantailatxo da. Zer esanik ez, euskara ikasten ari direnentzat albiste ona dela. Entzumen lantzeko aukera paregabea da.



Yeray gaztea eta gurasoak, elkartasun-sarea antolatuta duten herrikideekin, Karrika auzoko Coviran janari-dendan. AIURRI

Yerayren babes taldearen eskertza-mezua

"Nekez adierazi liteke hitzez sentitzen duguna, baina esan nahi dugu biziki eskertuta gaudela Karrikako eta Andoaingo bizilagunek erakutsi diguten mugagabeko eskuzabaltasunagatik", adierazi dute senideek

Xabier Lasa ANDOAIN

Hesteetako gaixotasuna daukala eta hazteko hormonak behar dituen Yeray mutikoaren aldeko elkartasuna eguna egin zuten Zumea plazan, joan den larunbatean. 7.100 euro bildu zituzten bertan, eta kopuru hori emateko, elkartasun egunaren bultzatzaileak eta Yeray eta bere gu-

raso Patricia Martin eta David Rodriguez bildu ziren, Karrika auzoko Coviran janari dendan.

Emozioz beteriko ekitaldi xumea izan zen, eta Yerayren aitak, David Rodriguezek familiaren izenean hartu zuen hitza. "Nekez adierazi liteke hitzez sentitzen duguna, baina esan nahi dugu biziki eskertuta gaudela Karri-

kako eta Andoaingo bizilagunek erakutsi diguten mugagabeko eskuzabaltasunagatik. Herrikideen elkartasunari esker, Yerayk behar dituen hazteko hormonak zenbait hilabeteetan erosi ahal izango ditugu".

Ondoren, iragarri zuen Osakidetzari lehendik ere egin dioten eskariari eutsiko diotela,

alegia, "beregain har dezala Yerayk behar duen tratamendu berezia, hazteko hormonekin".

Rodriguezek injustutzat jo zuen Yerayrekin Osakidetzak hartu duen jarrera. "Badirudi osasun publikoan gertatzen ari den murritzeten politikarekin duela zerikusia Yerayri eman dioten ezetzak. Gaur Yerayri gertatu zaio, baina bihar, edonori gerta dakioke. Behar-beharrezkoa dugu guztion ongizatea zainduko duen osasun publiko sendo bat".

Ekarpinak, egin daitezke oraindik

Bestalde, Elkartasuneko ekimenaren bultzatzaileak ohartarazi dute oraindik jarraitu litekeela ekarpinak egiten. ING bankuan irekita daukaten kontu korrontean (ES24 1465 0100 91 1751974798).

Elkartasun taldeak, honako pertsona, elkarte, komertzio eta entitateei eskerrak eman nahi dizkie, eskaintako laguntzagatik:

Andoaingo Udala, Xabi Sanchez eta Marivi Garmendia, Urrats, Keinu, Xabier Astigarraga eta Gorka de la Revilla soinu teknikariak, Pippermint Sextet musika taldea, DJ Ezekiel, Saito, Zumbalokura, Andoaingo Talogileak, Ormaki, Etxeberria harategia, Zabala bitxitegia, Mizpiradi eta Gaztañaga sagardotegiak, Euskalduna K.E., Berria, Aiurri, El Diario Vasco, Hementxe, Karrikako Elkartea, Ernaitza, Niko Iturbe lorezaintza, Bazar Chino Atlantico, Coviran Karrika, Insalus urak, Oreka, Tapimek sofak, Marce aroztegia eta, Txalaka, Nairu, 97, Urkiola, Muga, Txitibar, Olloki, Danena, Gaztelutxo, Irrintzi, Daico eta Karrika taberna eta jatetxeak.



Plataformako hainbat kide. AIURRI

Postua jarri zuen C2ak kaltetutako plataformak

Informazio-panelak jarri zituzten Kale Nagusian, aurreko larunbatean

Erredakzioa ANDOAIN

C2ak kaltetutako plataformak agerpena egin zuen aurreko larunbatean, Kale Nagusian. Talde barruko lanetan jardun dute udaz geroztik, eta azken asteotan informazio-panelak landu dituzte. Horiek ikusgai ziren, aurreko larunbatean. Horietako batean honakoa irakur zitekeen: "Urumeako bariantea A-15 / La rotonda de Gipuzkoa: Loiola, Astigarraga, Hernani, Urnieta... Guztiak errepidea herrigunetik kanpo atara dute. Eta Andoainen noiz? Hondarribia, Orío, Zumaia, Tolosa, Azpeitia, Zumarraga, Bergara...diru publikoaren inbertsioa jaso dute. eta Andoainen noiz?".

Ernaitza

liburudenda

Eguberritako eskaintza bikaina

Gurean topatuko dituzu:

- Durangon aurkezten diren nobedadeak.
- Kultura bonoaren onurak.
- Joku, jolas eta opari gaiak.

Zumea, 9. ANDOAIN. 943 592 459

ernaitza.amilibro.com

ernaitza@yahoo.com



AIURRI



AIURRI

Eguberrietako argien piztuera

Gabonetako argiak piztu zituen, astelehenean, Magale Salestarrak ikastetxeak. Makina bat bizilagun bildu zen Urrietako Etxeberri plazan. Ikastetxeako Lehen Hezkuntzako nahiz Bigarren Hezkuntzako ikasleak izan ziren ekitaldiko protagonistak: dantza, bertsoak, kantuak... Txokolate beroarekin eman zioten amaiera egunari.



AIURRI

Gaztain-jatea Andoainen

Urki dantza taldeak urteari amaiera emateko ospakizun ederra antolatu zuen, aurreko larunbatean. Kide ugari dantzan jarri zituzten, Malkogariyak taldeko erritmora. Hori gutxi ez eta, goiza girotzeko gaztainak eskaini zituzten. Gau Beltzan erakustaldia eskaini zuten, kalean. Aurreko larunbatean ere herritarren aurrean aritu ziren, gabon giroa herrira hurbilduz.




AIURRI



AIURRI

Andoainen gutunak jaso dituzte




Abenduaren 15ean Olentzero eta Mari Domingi Andoaingo Etxeberrieta plazan izan ziren, haurren eskaerak eta gutunak jasoz. Ohi bezala, dozenaka haur eta familia hurbildu ziren. Arratsaldea osatzeko, txokolate beroa eta bizkotxoak eskaini zituen Kotoi elkarteak. Eta Jai Batzordearen eskutik, gaztain-erreak. Arratsalde-iluntze borobila izan zen.



Eguberri on!!!

Eguberriak beti ekartzen zaitu etxera.
Erosi Andoainen, mantendu bizirik herria.

TXU-TXU TRENA
Abenduak 23
10:00 - 14:00
Goikoplazatik aterako da











GONZALEZ SASTRE

Eguberri eta arte berri on





Peru Sanchez Larrañaga, Lander Sanchez Zurdo eta Iosu Lopez Niño Poxta Zaharreko kideak. AIURRI

“Aitzakia ederra da herrian giroa pizteko eta urtea ondo bukatzeko”

PERU SANCHEZ LARRAÑAGA, LANDER SANCHEZ ZURDO ETA IOSU LOPEZ NIÑO

Poxta Zahar elkarteak urte zaharreko lasterketa antolatu du, abenduaren 31rako. Lau bat kilometroko lasterketa izango da, eta hori burutzeko boluntarioak behar dituzte

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Urteko azken egunean, korrika ipini nahi ditu Poxta Zahar elkarteak urnietarrak. Nola? San Silbestre lasterketa herrikoia antolatu du abenduaren 31n, arratsaldeko 16:00etan hasita. Besteak beste, Peru Sanchez, Lander Sanchez eta Iosu Lopez herrikideak dabilta antolaketan. Mozorroa prest, irakurle?

Hiru urteren ostean, hemen da, Poxta Zaharren eskutik, berriro ere San Silbestre lasterketa herrikoia. Zerk bultzatu zaituzte berriro hitzorduari eustera?

Peru Sanchez: Jendeak motibazio handia duela uste dut. Koronabirusaren ondoren, jende gehiago ikusi dut kirolean, korrika, mendian... Horrek eman digu bultzada hitzordua antolatzeko.

Lander Sanchez: Lehen ere egiten ziren ekimenak berreskuratzea ere badugu helburu, atzean gelditu ez daitezten.

Iosu Lopez: Korrika egitea gustuko dugun zenbait bildu gara, eta aitzakia horrekin, San Silbestre berreskuratzea erabaki dugu. **Lasterketak duen kutsu herrikoari ere eutsi nahi diozue, era berean.**

I.L.: Ezaugarri hori ardatz hartuta antolatu dugu aurtengo edizioa. Ibilbidea aldatu dugu, baita kilometrajea ere. Edozein bizilagunek egin dezakeen distantzia da, ez da lau kilometro iristen.

L.S.: Ibilbide motza, azkarra eta ahalik eta lauena izaten ahalgindu gara, herriak duen izaera aldapatsua kontuan hartuta, ahalik eta jende gehiena animatu dadin.

P.S.: Idiazabal kalea luzea eta laua da. Bada, guztia gurutzatu beharko da. Era berean, horrek ikusgarritasuna emango dio lasterketa herrikoari, jende gehiago ibili ohi delako bertan.

Bi kategoria izango omen dira, txikiena eta helduena.

L.S.: Haurren kategoria ere berreskuratu nahi izan dugu. Arratsaldeko 16:00etan hasiko da hori, helduena baino zertxobait lehenago. Adinaren arabera taldeak egingo dira.

I.L.: Hori da, haurren kategorian, hiru azpimultzo egongo dira: 5-6 urtekoak 7-8 urtekoak eta 9-10 bitartekoak. Adin horretatik aurrera, lasterketa luzean parte hartzeko aukera izango dute.

Parte hartu nahi duenak, nola egin beharko du dortsala eskuratzeko?

L.S.: Lasterketaren aurretik izango da izen-ematea, 15:30ean. Hiru euroko balioa izango du parte-hartzeak eta solidarioa izango da lasterketa.

I.L.: Dorsalaz gain, kateorrazak ere gure kontu! Bestalde, horrelako ekimenak gauzatzeko boluntarioen lana ezinbestekoa da. Beraz, interesa duenak jarri harremanetan 634410381 mezu bat bidalita.

P.S.: Eta, adi, mozorroa derri-gorrezkoa izango da parte hartzeko!

Ayestarane, Londonen laguntzarekin, egindako orogaria eskuratu dute helduen kategoriako lehen sailkatuek. Baina, era berean, askotariko produktuen zozketa ere izango da, lasterketako parte-hartzaileentzat.

I.L.: Tokiko merkatarien eskutik banatuko ditugu zozketa bidez opariak. Honako hauek hartuko dute parte: Hotel K10, Leandro Belaunzaran harategia, Altuna sagardotegia, Zaldundegi jatetxea, Fagoaga harategia, Iparralde taberna, Rosco urdaiazpikoak, Guria taberna, Muazpi harategia, Frontoi taberna, Oianume jatetxea, Gaztelo gozotegia, Labetxo okindegia, Egur taberna eta



Euskal Herriko trofeoa Keinuko txapela da

Gabon zoriontsuak
KeiNU

www.txapelasybordados.com
www.txapelaketabordatuak.eus

Goikoplaza, 5. ANDOAIN 637 283 224 keinuandoain@gmail.com [keinu.andoain](https://www.facebook.com/keinu.andoain)



Lagunartean parte hartzeko lasterketa aproposa da, urte zaharreako. AIURRI

London akademia. Nork bere eskaintza egin du, lasterketari begira.

Dena dela, guztia ez da sari-banaketarekin amaituko ezta? Ospakizun giroari jarraipena emango omen diozue...

L.S.: Frontoi tabernan hasiko dugu iluntzeko poteoa, herriari itzulia eman aurretik. Dortsala erakusten dutenek deskontua izango dute.

I.L.: Halere, eskaintza berezia ere izango dute, ziurrenik, ikusleek zein boluntario-lanetan egon direnek. Aipatu ere, batetik, azken urteetako Gabonetako dinamika aldatu nahi izan dugula aurten. Eta, bestetik, eskertza modura, urte osoan Poxta Zaharrekin keinu berezirik izan duten taberna horietatik itzulia eman nahi dugu, Frontoi tabernatik hasita.

Parte hartu nahi duenarentzat gomendiorik bai?



Antolatzaileetako batzuk, 2019ko edizioan. AIURRI

P.S.: Lasterketa motzagoa izango da, beste urteekin alderatuta. Hortaz, egin beharreko ahaleginagatik zalantzan dabilen horri esango nioke ez duela arazorik izango hasteko eta bukatzeko, ez dagoela presarik.

L.S.: Mozorrotuta joateak ere lagundu egingo die lotsatiei,

korrika egin bitartean, inor ezagut ez ditzan.

P.S.: Aitzakia ederra da herrian giroa pizteko eta urtea ondo bukatzeko.

L.S.: Aurrera begira, datorren urtean antzeko kirol-dinamikak sustatzen ahaleginduko gara Poxta Zaharretik.

Lasterka Itzuli, edizio berria Andoainen

Abenduaren 31ko lasterketan parte hartu nahi duenak aurretik izena eman behar du, on line bidez

KOMUNITATEA

Lasterka Itzuli / ANDOAIN

Abenduaren 31n, 11:30ean ospatuko da, aurtengoan ere, Andoaingo San Silbestre lasterketa. Festa giroan eta lagun artean herritarrek korrika egiteko aukera izango dute. 5,3 kilometroko luzera izango duen ibilbidean, Bastero eta Etxeberrieta artean. Lasterketari festa izaera

eman nahi dio antolakuntzak eta lasterkariak mozorrotzeko deia egiten du. Lasterketaren emaitza eta sailkapenari baino, parte hartzeari emango zaio garrantzia. Sari bereziak zozketatuko dira parte hartzaileen artean. Lasterketaren izen-ematea aldeztu aurretik egin beharko da eta dagoeneko www.kronoak.com/eu helbidean egin daiteke.



Euskaldunako futbolari gazteak ere korrika. AIURRI

Eskubaloi txapelketa

Leizaran Eskubaloi Taldea, Andoaingo Udalaren eta Partille Cup-en laguntzarekin, 2023ko abenduaren 28, 29 eta 30ean egingo den Andoain Cup eskubaloiko nesken lehen txapelketa antolatzen ari da, haurren kategorian. Estatu osoko 32 taldek parte hartu ahal izango dute. Abenduaren 20an amaitu zen izen-ematea.



AIURRI

Oparien aukeraketaren zailtasunez jabetzen garelako

Zalantzak entzun, aukerak proposatu, gustora egiten dugun lana

#ormendikirolak

aldaketak 2024-01-14ra arte

Abenduak 23 arratsaldean irekita



HITZORDUAK ANDOAINEN ETA URNIETAN

ASTEARTE EGUERDIA BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 21

URNIETA San Tomas ospakizuna
Musika eta txistorra.
17:00-19:00, San Juan plaza.

URNIETA Kontzertuak
Udal Musika eskolako ikasleak.
17:30, Musika tailerra.
19:00, Piano entzunaldia. Sarobe.

OSTIRALA 22

URNIETA Kontzertua
Abesbatzak.
19:00, Sarobe.

URNIETA Aisialdia
Jarduerak haurrentzat.
Abenduak 22-29, Ludoteka.

LARUNBATA 23

ANDOAIN Txutxu tren
Salkin merkatarien elkarteak antolatuta.
10:00-14:00, Goikoplaza.

URNIETA Kalejira
Olentzero eta Mari Domingi Urrietara datoz.
17:30, Berrasoeta.
19:00, San Juan plaza.

IGANDEA 24

ANDOAIN Kantu erronda
Gora Kaletxiki txarangaren eskutik.
12:00, Zumea plazatik
Goikoplazara.



ANDOAIN Etorrera

Olentzerori eta Mari Domingiri Santa Krutz ermita aurreko eremuan egingo zaie harrera. Hortik Kale Nagusian barrena abiatuko dira herriko haurrak bide-lagun dituztela.
17:30, Espigoia.

URNIETA Kantu erronda
Kantazaun taldearen eskutik.
Urrietan, kalez kale.

ASTEAZKENA 27

URNIETA Kirol gala
19:00, Sarobe.

OSTEGUNA 28

ANDOAIN Olagain Txistulari Elkartearen kontzertua
20:00, Santa Krutz eliza.

ANDOAIN Andoain Cup.
Eskubaloitxapelketa.
Abenduak 28-29-30.

OSTIRALA 29

ANDOAIN Kontzertua
Ispirit, Rivers of Babylon.
20:00, Bastero.

URNIETA Saski banaketa
Auzo elkartearen eskutik.
Etxeberri plaza.

LARUNBATA 30

ANDOAIN Bertso poteoa.
Puntuka Bertso Eskolak antolatuta, urte amaierako bertsoaldia.
Ibilbidea: Anaiak, Xarma, Elizondo, Urkiola, Irunberri eta Gaztelutxo.
17:30, Goikoplazatik Zumea.

URNIETA Saskibaloia
Gabonetako Saskibaloitxapelketa.
UKEK antolatuta.

IGANDEA 31

ANDOAIN Kalejira
Olagain Txistulari Elkarte.
11:00.

ANDOAIN Lasterketa
Lasterka Itzuli.
11:30, Zumea Plaza.

URNIETA Lasterketa
Poxta Zaharrek antolatuta.
15:30, Izen-ematea.
16:00, Haur lasterketa.
16:30, Helduen lasterketa. 4 Km.
San Juan plaza.

ANDOAIN Disko Festa-DJ Nemux.
Urte Zahar Gaua.
20:00-01:00, Nafarroa Plaza.

ASTEARTEA 2

ANDOAIN Go!azen 10.0
Gazteboen gogoko ikuskizuna, ETBko teleasailan oinarrituta
16:30; 19:00, Bastero.

URTARRILAK 2

ANDOAIN Haur parkea
Urtarrilaren 2an, 16:00-20:00 artean, aniztasun funtzionala duten haurrei zuzenduta.

Urtarrilaren 3 eta 4ean: 11:00-13:30 eta 16:00-20:00.
Urtarrilak 2, 3, 4.
Allurralde Kirolegia.

URNIETA Haur ikuskizuna
"Tomaxen abenturak".
17:30, Sarobe.

ASTEAZKENA 3

URNIETA Pilota jokoak
Adin guztientzat.
16:30-18:30, Kiroldegia.

ANDOAIN Kontzertua
Olagain Txistulari elkarte: Gabon Giroan kontzertua.
18:00, Zahar egoitza.

OSTEGUNA 4

ANDOAIN Kontzertua
Iñaki eta Olatz Salvador: "Familia artean" biraren azken kontzertua.
20:00, Bastero.

URNIETA Puzgarriak
Adin guztientzat.
11:00-13:00
16:30-18:30, Kiroldegia.

OSTIRALA 5

ANDOAIN Etorrera
Errege Magoen etorrera.
18:30, Zumea plazatik
Goikoplazara.

URNIETA Etorrera
Errege Magoen etorrera.

Ingeles eskola
Eguberri eta Urte berri on!
Merry Christmas and a Happy New Year

Cambridgeko azterketen prestakuntzarako zentro homologatua

Ondarreta kalea, 7-behea. ANDOAIN
943 300 839. www.andoainenglish.com



andoainDARRA
euskaraz



KOMUNITATEA

EGAPE IKASTOLAKO DBH 4.MAILAKO IKASLEAK URNIETA

Urnietan bizitza, merkataritza anitza

Urnietako merkataritzaren egoera eta herritarren erosketak ohiturak aztertzeke asmoz galdetegi bat prestatu genuen. Erantzunak jasotakoan grafikoak egin eta erantzunak aztertu genituen.

Asko dira eguneroko erosketak Urnietan bertan egiten dituzten herritarrak baina saltoki handi ugari ditugu inguruan eta jendeak gero eta ohitura handiagoa du saltoki handi horietara joateko.

Proiektu honetan landu duguna kontuan hartuta, tokiko merkataritzak abaintaila asko eskaintzen dizkigula ondorioztatu dugu. Batetik, bitartekari gutxiago daude produktua sortzen den momentutik saltzen den arte. Bestetik, produktu horien kalitatea hobea da. Gainera, herriko ekonomia hobetzen da, lanpostu berriak sortuz eta azkenik, produktuak herrian bertan erosten direnez, ez da garraibiderik erabili behar beste herri edo leku batera mugitzeko; beraz, kutsadura murrizten da.

Beraz, gure aldetik Urnietako herritarrak erosketak herrian bertan egitera animatu nahi zaituztegu; are gehiago, orain, Gabonetan, garai hauetan gure kontsumoa areagotzen denean. Besterik gabe, Urnietako merkataritza sustatuko duzuelakoan.



Badatoz Urnietara

Abenduaren 23an, larunbatarekin, Urnietan biziki maite dituzten Olentzero eta Mari Domingi hurbilduko dira. Berrasoetan harrera egingo diete, 17:30ean. Ez dira bakarrik ariko. Egape, Txanbolin, Anabasa eta musika eskolako trikitilariekin batera kalejiran ibiliko baitira. 19:00tan haurrek gutuna emateko aukera izango dute, herriko plazan.




AIURRI



AIURRI

Kirol gala Urnietan

Abenduaren 27an Urnietako kirol arloko protagonistak gogoan hartuko dituzte, Kirol Gala izenburupean antolatuta duten ekitaldian 19:00tan izango da, Saroben. Ekitaldiaren xehetasunak ezagutu gabe, Urnietarrek sobera dakite goi mailako kirolarien sorleku dela Urnietan. Urrutira joan gabe, hortxe daude Jokin Lizeaga lasterkaria, Nahikari Garcia futbolaria, Mikel Iturria txirrindularia, Imanol Ansa erremontista... Goi mailan lehiatzen ari diren urnietarrek dira. Ez dira bakarrik, eta beste hainbat jardueretan serio-demonio lanean ari dira kirolari ugari. Iker Hernandez futbolariak, esaterako, munduan barrena gol erabakiorrak sartzen darrai, Olatz Odriozola txirrindulariak eskarmentu handia pilatu du eta berrogei urterekin Gipuzkoako ziklo-kros txapela jantzi du. Herri kirolatan, Nerea Arruti eta Julen Gabirondo goi mailan ari dira. Naroa Grinche gazte futbolaria Real Sociedad taldean ari da. Talde mailan, Urnietako senior mailako taldeak Preferente mailara igotzea lortu zuen. Amaia Agirre Gonzalez eskalataleak ere aipamena merezi du. Heriotza aurkitu zuen bere gogoko jardunean, baina ez da berehalakoan ahaztuko bere izena eta izana.



AIURRI



AIURRI

AMABI GABON ZORIONTSUAK

AMABI
hour eta gazte jantziak
0-16 urte

Zumea kalea, 15. ANDOAIN. 943 59 31 62

f i

MUAZPI

Harategia

- Bertako haragia
- Jaki prestatuak
- Delikatessen
- Ardotezia

Gabon zoriontsuak!

Errekalde, 14. Urnietan
943 008 304 / 665 73 78 71
muazpi@gmail.com



Uxue Sanchez Larrañaga eta Ane Etxeberria Izagirre. AIURRI

"Inoiz jasotako erantzunik beroena izan genuen"

UXUE SANCHEZ LARRAÑAGA ETA ANE ETXEBERRIA IZAGIRRE AUKERAN Argentina eta Uruguai bisitatu zituen, azaroaren hasieran, Aukeran Dantza Konpainiak. Bertako zenbait euskal etxe bisitatu zituzten

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Tarteka, oraindik, bizi izandakoa ezin sinetsi dabilta Aukeran Dantza Konpainiako kideak. Argentinara eta Uruguaira egin zuten salto, azaroaren 6tik 18ra bitartean. Necochean nahiz Buenos Airesen eta Montevideon zein Salton izan ziren, Euskal Herriko kultura eta dantzak herrialde horietako euskal komunitatearekin partekatzen. Bertan bizitakoak gogora ekarri dituzte dantzariek.

"Mundu erdia gurutzatu eta Euskal Herritik hain gertu sentitzea ez genuen espero", zenioten bidaiaren amaieran.

Uxue Sanchez: Egin ziguten harre-
ra nabarmenduko nuke: Necocheako euskal etxera iritsi bezain pronto, "Agurra" dantza-
tu ziguten. Ez nuen batere es-
pero, eta zur eta lur gelditu
ginen guztiok. Era berean, oso
gertukoa izan da gurekin jendea,
oso ondo tratatu gaituzte uneo-
ro. Etxean bezala sentitu gara.

Ane Etxeberria: Askotan ez nuen
sinisten bertan negoela. Egoera
arraroa zen, esaterako, Argenti-
nan, jendea euskaraz hitz egi-
ten ikusten genuelako, sagardo-
tegia antolatu zutelako, euskal
musika zaleak zirelako. Erro-
meria, euskal dantzak...

U.S.: Hirugarren aldiz joan da
Aukera Dantza Konpainia ber-
tara. Hortaz, gertutik ezagutzen
zuten taldearen ibilbidea.

Zein emanaldi plazaratu zenituzten Argentinako Necochean nahiz Bue-

nos Airesen, eta, Uruguaiako Montevideon zein Salton?

A.E.: Lehenik, Necocheako pilo-
talekuan, "Maurizia" plazaratu
genuen. Ondoren, Paris antzo-
kian, "Migratzaileak" taularatu
genuen.

U.S.: Azken horretan, migra-
zioaren gaia dugu hizpide. Hain
justu ere, lotura handia du dias-
porako jendeak migrazioarekin:
bertako jende asko bizi da Eus-
kal Herrian, eta alderantziz.

A. E.: Uruguairen kasuan ere
"Maurizia" izan zen kaleko ikus-
kizuna eta, Sala Verdi antzokian,
"Migratzaileak" egin genuen.

Harrera beroa jaso al zenuten?

A.E.: Paris antzokian egindako
emanaldia dut gogoan, zoratzeko
modukoa izan zen! Handia
da antzokia, jende mordoa ka-
bitzen da eta ez zegoen aulki
bat bera ere libre. Bada, ikusi-
zuna hasi aurretik, oihala itxi-
ta zegoela, eta, gu, ekitear,
"Ikusi mendizaleak" hasi zen
kantzen publikoa, txaloka eta
txaloka. "Eta, orain, guk hasi
behar al dugu?", esaten genion
elkarri...!

U.S.: Mila pertsonako teatroa
beteta. Gainera, dantza bakoit-
zaren amaieran, txalo zaparra-
da jasotzen genuen. Izugarria
izan zen, sinesgaitza.

A.E.: Publikoaren partetik, inoiz
jasotako erantzunik beroena
izan genuen.

U.S.: Zaila izango da hori gain-
ditzen. Antzoki zaharra da, gai-
nera, xarma berezia du. Ema-
naldia hunkituta amaitu genuen.
Oilo-ipurdia jarri zitzaigun
guztioi ikuskizuna bukatu, argiak
piztu eta, antzoki osoa jendez
lepo, gu txalotzen ikustean.

Gainera, lagun handiak egin zenituzten Laiotz taldeko kideak.

A.E.: Argentinan egondako astea
elkarrekin igaro genuen. Oso
esperientzia bizia izan zen.

U.S.: Otorduak nahiz aparteko
planak elkarrekin egiten geni-
tuen, eta lotan ere eraikin berean
ginen. Oso harreman polita egin
dugu, hasiera-hasieratik.

Aukeraren koreografie zozatzeko aukera ez ezik, zuen eskutik, dantza egiten ikasteko aukera ere izan zuten bertakoez, master class delakoetan.

U.S.: Euskal etxe guztietan, "Agu-
rra" erakutsi genuen. Edu Mu-
ruamendiarazek ematen zituen
klaseak eta inguruan ibiltzen
ginen gu laguntzeko eta zalantzak
argitzeko. "Donostiako martxa",
fandangoa eta gipuzkoanoa ere

erakutsi genituen, besteak bes-
te.

Nola bizi du ezagututako euskal diasporako jendeak Euskal Herriarekin eta hizkuntzarekin duten harremana?

U.S.: Jende askok zekien euskaraz.
Komunitate handia dute.

A.E.: Nahiz eta hizkuntza guztiz
ondo ez menderatu, euskaraz
zuzentzen zitzaizkiuz. Ahalegin
handia egiten zuten, hitz egite-
ko, esaten zenuen ulertzeko...
Laiotzekin, erromerian, adibidez,
abesti pila ezagutzen zituzten,
euskaraz.

Bi aste bidaia izan zen. Lekualdatze asko izan zenituzten. Ondoren, ondo erantzuten al du gorputzak emanaldietan?

U.S.: Eromen handia izan zen
joateko bidaia. Izan ere, Bilbotik
Madrilera joan behar genuen,
eta, handik, Buenos Airesera,
zuzenean. Bada, Bilboko hegaldia
atzeratu egin zenez, galdu
egin genuen Madrildik Argenti-
narako bidaia. Ondorioz, ha-
mabi ordu beranduago abiatu
ginen Latinoamerikara.

A.E.: Gainera, hamahiru ordu-
ko hegaldia izan zen Buenos
Airesera. Bada, lur hartu bezain
pronto, autobusa hartu genuen
eta zazpi orduko bidaia egin
genuen errepidean Necochea
iristeko.

U.S.: Necocheako egonaldian,
ez ginen mugitu. Baina Buenos
Airesetik aurrerako bidaiari,
nabaria zen nekea gorputzean.

A.E.: Autobus-bidaiarik motze-
na sei bat ordukoa egin genuen.
Bigarren astea izan zen neke-
tsuena. Baina ederki gozatu dugu
esperientzia!

Bertako jendeari Euskal Herriko zati bat gerturatu zenioten. Zer ekarri zenuten zuek bueltan?

U.S.: Jendearen harrerarekin eta
antolakuntzarekin gelditzen naiz
ni. Zoragarria izan da.

A.E.: Etxean bezala sentitu ginen
uneoro, oso jende adeitsua eza-
gutu dugu. Behar genuen guztian
lagundu gintuzten, inolako oz-
toporik jarri gabe.

Lanean jarraitzeko bultzada eman al dio konpainiari horrelako esperientzia bizitzeak?

A.E.: Bai, guztiz. Egiten duzun
lanari zentzua ematen dio hor-
relako harrerak. Gure lanari
aitortza egiteko modu berezia
da.

Oso eskertuta zegoen jendea
gurekin. Edonork amestuko lu-
keen zerbait da bizi izan dugu-
na.



Esperientzia zirraragarria izan da Aukeran dantza taldeko kideentzat. AUKERAN

U.S.: Opari ederra izan da. Due-la hiru urte, Aukeran taldean hasi nintzenez, ez nuen sekula pentsatuko dantzan amaituko nuenik Argentina eta Uruguai aldean.

Aurrera begira, ba al duzue hitzordurik eskuen artean?

U.S.: Datorren urteari begira, proiektu berri batean murgilduko gara. Euskal ipuinak izango ditugu hizpide bertan.

KOMUNITATEA

HURRIA-SAHARA ANDOAIN

Elikagai bilketa, Sahararen alde

Aurreko urteetan bezala, Hurria Sahara elkarteak elikagai-bilketa kanpaina berri bat jarri du abian Aljeriako Tindouf eremuko errefuxiatu sahararren alde, "Elikatu itxaropen bat" programaren barruan.

Kanpaina honen lehenengo jarduera Gabonen aurreko larunbat honetan egingo da, abenduaren 22ko goizean: elkarteko kideek Andoaingo behelaldean eta azoka inguruan diru-bilketa egingo dute, eta herritaren emandako ekarpen ekonomikoak zuzenean elikagaiak erostera bideratuko dira. 2024ko egutegia ere eskuratu ahal izango da.

Hurria Sahara elkarteak jabetzen da bizi dugun egoera ekonomiko eta sozialaz, eta horregatik alde aurretik eskerrak eman nahi dizkiegu



Iraganean egindako kanpaina. AIURRI

andoaindarrei sahararren borrokari laguntzeko egiten duten ahaleginagatik.

Aurtengo janari bilketa kanpainaren berritasuna izango da jasoko diren elikagaien artean glutenik gabeko irina eta makarroiak ere txertatuko direla,

errefuxiatu sahararren kanpamentuak munduan proportzionalki zeliakiak jotako pertsona gehien dauden leku bihurtu baitira: haurren %5'6ean du zeliakiak eragina, eta glutenik gabeko elikagaiak eskuratzeko aukerarik ez dutenez, osasunean kalte handiak eragiten die.

Elikagaiak biltzeko guneak herriko denda gehienetan egongo dira eskuragarri, eta oporraldiaren ondoren Andoaingo ikastetxeetan ere jasoko dira arroza, pasta, azukrea, atuna, lekaleak....

HILAREN 22AN POSTUA JARRIKO DU ELKARTEAK, MERKATU PLAZAN ETA ZUMEA PLAZA INGURUAN



TXIMINIAN UTZI DUT
NIK AURTEN POLBORON
ETA OLENTZERORI
NIKESKATU TURRON
OPARIAK IREKI
ESANEZ ZORION
DENONTZAT ZORIONAK
TA URTE BERRI ON!


LH6. mailako ikasleak

1	Christmas	2	CHRISTMAS	3	CHRISTMAS	4	CHRISTMAS	5	CHRISTMAS	6	CHRISTMAS
7	CHRISTMAS	8	CHRISTMAS	9	CHRISTMAS	10	CHRISTMAS	11	CHRISTMAS	12	CHRISTMAS
13	CHRISTMAS	14	CHRISTMAS	15	CHRISTMAS	16	CHRISTMAS	17	CHRISTMAS	18	CHRISTMAS
19	CHRISTMAS	20	CHRISTMAS	21	CHRISTMAS	22	CHRISTMAS	23	CHRISTMAS	24	CHRISTMAS

* Ilustrazioak DBH 1-2-3-4 ko ikasleak

KOMIKIA

GARBIÑE UBEDA MARRAZKILARIA



GORA ETA BEHERA



Lankideen aitortza

Anabel Fernandezek omenaldi-ekitaldira Andoaingo Osasun Etxeko lankide ugari hurbildu zen. Emaginak arrasto sakona utzi du.



LANKIDEAK

KOMUNITATEA

SARE HERRITARRA URNIETA, ANDOAIN

Konponbiderako giltzak

2024ko urtarrilaren 13an, “Konponbiderako giltzak“ lelopean, Bilbon egingo den manifestaziora joateko autobusa antolatu dute Andoaingo eta Urnietako Sarek. Mobilizazio baketsu eta demokratiko bat izango da, eta Sareren helburua da bertan milaka pertsonak giltzak hartzea beren eskuetan, presoen etxerako bidea, konponbidea eta bizikidetzak irekiko dituzten giltzak. Beste urte batez mezu bat bidali nahi diogu euskal gizarte osoari, giza eskubideen defentsa helburutzat hartu nahi duten emakume eta gizon guztiei, edozein dela ere haien ideologia edo atxikipen politikoa. Ez gara ari helburu politiko edo alderdikoez, eskubideez baizik, eta salbuespen egoera, juridikoa eta espetze arlokoa, bukatu beharraz. Finean, bizikidetzaz ari gara. Bertaratu nahi dutenek aurrez izena eman behar dute:

Urnietak

Bikain kafetegia (San Juan Plaza).

Andoain

Irunberri (Kale Nagusia).

Bus-irteera urtarrilaren 13an:

Irteera-ordua: 15:00. Matxo taberna (Urnietak). Makaldegia (Andoain).

GORA ETA BEHERA



Urnietako pilotazaleak

Aurreko larunbatean UKE-k pilota jardunaldia antolatu zuen, eta, bertara, herriko haur eta gazte ugari hurbildu zen.



INSTAGRAM: URNIETA_PELOTA

GORA ETA BEHERA



Kamioien joan-etorria

Zarata eta kutsadura bertatik bertara bizitzen ari da Urnietako zenbait herritar, Zabaleta auzoan. Protestaren lekuko izan da Aiurri.



AIURRI



SANTA KRUZ

Txapelkunak

Juan Migel Arteaga eta Jose Luis Toledotxiki garaile izan ziren abenduaren 16an Urnietako Santa Kruz elkarteak antolatutako mus-txapelketan.



Ganbara Saski Taldeko kideak Allurralde kiroldegian, joan zen abenduaren 15ean egindako argazki-sesioan. AIURRI

Emaitzak eta sailkapena, berehala Aiurri.eus gunean

TOKIKOMekin lankidetzan, Andoaingo eta Urrietako futbol, eskubaloi eta saskibaloi taldeen emaitzak, sailkapena eta egutegia argitaratzen hasi da Aiurri.eus webgunea. Emaitzen kasuan, partidak amaitu eta gutxira argitara ematen dira

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Berrikuntzak datoz. TOKIKO-Meko Matx proiektu berriaren eskutik, bailarako kirol klubuen berri jaso daiteke Aiurri.eus-en, eta, aldi berean, baita partiduen eta emaitzen berri ere. Berrikuntza hori, gaur-gaurkoz, futbola, saskibaloia eta eskubaloiari dagokio. Dagoeneko, martxan da. Adibide praktikoa: UKEko senior taldeak Axular garaitu zuen (2-1), igande eguerdian hasitako partidari. 15:30erako, emaitza ageritzen Aiurri.eus-en.



Ganbara saskibaloia emaitzak. AIURRI.EUS

Bost atal berezi berri

- Ganbara Saski Taldea: Aiurri.eus/komunitatea/ganbara_saskibaloia.
- UKE eskubaloia: Aiurri.eus/komunitatea/uke_eskubaloia.
- Leizaran eskubaloia: Aiurri.eus/komunitatea/leizaran_eskubaloia.
- Euskalduna futbol taldea: Aiurri.eus/komunitatea/euskalduna.
- UKE futbol taldea: Aiurri.eus/komunitatea/uke_futbola.



Urnieta Keren maitza, eskura. AIURRI.EUS

ADARRARA GAUEZ
besabitik abiatuta eta ilargi beta aprobetxatuz
abenduaren
22

irteera: 18:00...
egingo da: 17:30...
LOKALAK: GEGAS - ADARNA - BOSQUE
COMENDAGARRIA : LINTERNA, FRONTALA + NEGLJO ARROPA (egurrikaren ardurak)

animatu eta azaldu!!!

Urrietako
udala

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
ORAIN GIPUZKOA

Azken agurra, jendetsua, Aitziber Ugartemendiari

Abenduaren 16an azkar batean zabaldu zen Andoainen Aitziber Ugartemendia Zubeldia herrikidearen heriotza, gaixotasun luze baten ondorioz. Eragina sekulakoa izan zen, eta beilategira ehunka herrikide eta lagun hurbildu ziren asteburuan

Xabier Lasa ANDOAIN

Aitziber Ugartemendia Zubeldia larunbat goizealdera zendu zen gaixotasun larri bat pairatu ondoren, eta berehala joan ziren zabaltzen saminezko mezuak. Egiazki, zirrara berezia eragin zuen Ugartemendiaren heriotzak, aski ezaguna baitzen Andoainen eta eskualdean, herrigintzan eta kulturagintzan.

Errekaldeko beilatokira makina bat senitarteko, lagun, ezagun eta herrikide bertaratu zen larunbatean zein igandean. Azken agurra igande arratsaldean bertan egin zitzaion. Bertako ekitaldi gela jendez gainezka zelarik, ugariak izan ziren berearekiko maitasuna adierazten zuten hitzak, abestiak eta bertsoak.

Ekimen anitzen bultzatzaile

Ugartemendia, lanbidez, Katxi-porreta konpainiako bazkideetakoa zen, eta berak zeramatzen bulego ardurak. Ekainean, Lasarte-Oriako jaietan, omenaldi berezia jaso zuten. Bertan izan ziren konpainiako kide ugari, baita garai batean aritutako lankideak ere. Hantxe izan zen Aitziber Ugartemendia, eta pailazoen egin bezala hark ere eskertza adierazi zien bertaratu zirenei.

Herrigintzan eta kulturagintzan hainbat elkarte eta ekimenetan parte hartu zuen. Besteak beste, Axeri Dantza elkartearekin, Santa Krutz Jai Batzordearekin eta Irunberri kultur elkartearekin urteak egin zituen lotuta estuki.

Bere heriotzaren berri eduki bezain pronto, atsekabezko mezuak zabaltzen joan ziren sare sozialetan batez ere. Horieta zozenbait aipatzearen, Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazo taldeak, esate batera, honako mezua zabaldu zuen: "Aitziber hil zaigu, Katxi-porreta familiako kide kuttuna, lemazain ausarta eta lagun mina. Familiak, lagunak, sudurgorriok... Hutsunea eta bihotzeko mina sentitzen dugu. Oso-oso triste gaude, baina, era berean, oso-oso harro eta pozik, Aitziberrekin bizitza bat, hamaika abentura eta balio ederrak partekatu ditugulako! Gure irri, kantu, amets eta muxu bakoitzean izango zara beti Aitziber. Sentitu, pentsatu, ekin... Maite zaitugu!"

Irunberri Kultur elkarteak, bere ibilbidean, Ugartemendia bidelagun konprometitua izan zuela gogoratu zuen, "Txoko batzordeko lanetan nekaezin, kultur elkartearen ekimenetan, baita jai giroan ere eredu izan

da beti. Aitziberren alaitasunak, kemenak eta konpromezuak Irunberriren proiektua errealtate izaten lagundu du urte luze hauetan. Harro gaude Aitziber borroka lagun eduki izanaz".

Hona, berriz, Axeri Dantza elkarteak zabaldu zuen mezua, Goikoplazan Axeri gisa dantzan ageri zen argazkiarekin batera: "Ez adiorik, axeri! Urrats bakoitzean eramango zaitugu gurekin dantzan. Maite zaitugu Aitziber!".

Andoingo udalean zinegotzi

Politikagintzan ere murgildu zen zenbait urtetan; hain zuzen, Andoingo Udalean Hezkuntza Saileko zinegotzi arduraduna izan zen, 2011-2015 agintaldian. Ugartemendia Kultura eta Hezkuntza Saileko zinegotzi ardurak hartu zituen. Ez zuen agintaldi osoa bete, ama izatear zela zinegotzi karguari uko egin baitzion. 2014ko azaroko Udal batzarrean egin zuen iragarpena. Agintaldia amaitzeko hilabete gutxi geratzen zen eta EH Bilduk Ugartemendiaren postua betetzeko Esti Mujika proposatu zuen. Lekukoa gertuko lagunari eman zion, beraz. Aipagarria da, agurreko plenoan, udal ordezkari politiko guztien alde-tik jaso zituen hitz goxoak.



Aitziber Ugartemendia Andoingo udaletxean, 2014ko udazkenean. AIURRI

Ilargiraino eta buelta, maite zaitugu Aitziber!

EHBILDU ANDOAIN

Zorigaitzoko albiste batek esnatu gaitu: adiskide, lagun, eta lankide izan dugun Aitziber Ugartemendia Zubeldiak utzi egin gaitu gaur. Lehen lerro hauek baliatu nahiko genituzke bere senide eta lagunei besarkadarik estuena helarazteko.

Alaia, adeitsua, langilea, nekaezina, lagunaren lagun... Mila aditzekin deskriba dezakegu hainbat urtez gurekin eskutik eskura lan egin duen Aitziber, baina guztien gainetik, enbata guztiei aurre egiteko izan duen indarra, izan duen erresilientzia nabarmendu nahi dugu gaur. Ez dugu bere parekorik ezagutu. Bidean trabak aurkituta ere, horiei izkin egiteko izan duen gaitasuna izugarria izan da.

Lan handia egin du herrigintzan, Irunberri, presoen eta euren senideen aldeko mugimenduetan, udaletxean... kulturagile porrokatu, dozenaka saltsatan jardun izan da; eta beti-beti izan du irri bat ahoan.

Horrela gogoratuko dugu: horrenbeste gogoko zituen txantxa eta ziriaren artean, irri handi batekin, beti lagunkoi, beti laguntzeko prest. Ez dugu berehalakoan ahaztuko zuk emandako guztia.

Ilargiraino eta buelta, maite zaitugu Aitziber!

Omenaldi sentitua Anabel Fernandez emaginari

Omenaldi-ekitaldi osoa ikusgai dago Aiurri.eus webgunean, bideoen atalean

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Badira, ibilian-ibilian, arrasto sakona uzten duten pertsonak. Anabel Fernandez emagina horietakoa izan zen. Bidegilea, emagin lanetan Andoainen Osasun Sailak izan zuen lehen pro-

fesioanala izan zen. Haren ibilbidea eta izana azaldu zuten udal teknikariek, lankideek eta baita haren zaintza eta aholkuak jasotako emakumeak. Jendetza elkartu zen Plaza Morean, omenaldi-ekitaldi soil bezain goxoan.



Askotariko belaunalditako emakumeek agurra dantzatu zuten. Eskuinean, lehen ilaran eserita, Anabelen senideak hunkituta. AIURRI

BEHIN KONTATU ZENIGUN
IRAILA EZ DELA BETI ITZULERA
BAINA ELKAR SENTITZEN DIREN ESKUEKIN
ENBATAK AIRE UFADA DIRELA.

BEHIN ERAKUTSI ZENIGUN
TXARRA KENDUTA ONDO EGOTEN
ZURE MARRAZKIETAN HEGAN EGITEN
ETA BIZIRAUTEN BEHAR BESTETAN ALDATZEN

ZUREGATIK JARRAITU NAHI DUGU
ORBANAK LAZTAN-MARRA
ETA EZPAINAK IRRIBARRA BILAKATZEN
INURRIKERIAK EGITEN
ETA HIL ARTE BIZI BEHAR DELA GOGORATZEN

MILA ESKER AITZI!!





ESKELA

**Aitziber
UGARTEMENDIA ZUBELDIA**

Dantzan oroituko zaitugu
Andoaingo Axerriak



Andoainen, 2023ko abenduaren 16an

ESKELA

**Aitziber
UGARTEMENDIA ZUBELDIA**





Andoaingo Udaleko
zinegotzia 2011-2015
legegintzaldian



Andoainen, 2023ko abenduaren 16an

ESKELA

**Aitziber
UGARTEMENDIA ZUBELDIA**

Zinegotzi-ohia





*Beti gogoratuko zaitugu nekaezin,
borrokalaria, indartsu.
Beti gogoratuko zaitugu
irri eta txantxa artean
Ilargiraino eta buelta
Maite zaitugu, Aitziber!*

ehbildu

Andoaingo
EH Bildu

Andoainen, 2023ko abenduaren 16an

ESKELA

**Arantxa
ZEBERIO BEGIRISTAIN**

Abenduaren 16an hil zen, 87 urte zituela.



*Bere senarra: Mikel Ansa;
seme-alabak: Xabier (†), Gurutze eta Josu Osa;
bilobak: Maia eta Asier, Intza eta Ander, Malen, Oier;
anai-arrebak, ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusuak,
bere zaintzaile Nieves eta gainerako ahaideak.*



Andoainen, 2023ko abenduaren 16an

ESKELAK JARTZEKO: 943 300 732
edo publizitatea@aiurri.eus

- ▶ Hileta egunean eskela Aiurri.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Aiurri astekarian eta Aiurri.eus-en: 160 euro + BEZ / Aiurriko harpidedunentzako 90 euro + BEZ /
- ▶ Eskela mota guztiak Aiurri astekarian + Aiurri.eus-en: 140 euro + BEZ / Aiurriko harpidedunentzako 90 euro + BEZ



Eskelak Aiurriin: 90 euro

10.000 euroko murrizketa Urnietan, Aiurri astekariari

Urte luzez izoztuta dagoen diru-partida eguneratzeko eskaera egin zuen Aiurrik, 2024rako. Urnietako Udal gobernu-taldeak –eta, zehazki– EAJ-PNVren esku dagoen Euskara sailak, partida eguneratu ez eta 10.000 euroko murrizketa ezarri nahi du

Erredakzioa URNIETA

Urnietako Udalak plenoa deitu du, ostegun honetarako. Eta bertan 2024ko Udal aurrekontuei bidea eman nahi diote EAJ-PNV eta PSE-EE alderdiek osatzen duten gobernu-taldeak. Beren asmoak aurrera jarraituz gero, Euskara sailaren esku dagoen Aiurriko dirulaguntza nabarmen jaitsiko da. Mikel Artola euskara zinegotziak eta Jorge Segurado alkateak azaroaren 27an egindako lehen proposamena ahozkoa izan zen. Bilera hartan, urte luzez izoztuta dagoen 36.000 euroko ekarpena 16.000 eurotan gutxitzea proposatu zuten. Geroztik, bilera bat baino gehiago



2004an abiatu zen Aiurri astekaria. Hogei urte beteko ditu 2024an. AIURRI

izan da baina ez da egoera bideratzerik lortu. Bigarren proposamenean ere, Udal gobernu taldeak diru ekarpenaren murrizketa handia iragarri dio Aiurriari. Jeltzaleen eta sozialisten botoek bat egiten badute, Aiurrik iaz jasoko zuena baino 10.000 euro guxiago izango da.

Afera honetan, jokalekua ez da soilik Aiurri astekaria, Inñistorra elkarte eta Urnietako Udalaren arteko negoziazioan kokatu behar. Maila politikoan, EH Bilduk, hasiera-hasieratik, dirulaguntza eguneratzea proposatu du. Aurrekontuen negoziazioetan hori izan da gobernu-taldearekin eztabaidagai izan duen aztergaietakoak. Horrez gain, gizarte mailara zabaldu da auzia, zeresana eman baitu euskalgintzan, kulturgintzan, kirolean eta beste hainbat alorrean. Ildo horretan, Udalean ordezkariak duten hiru alderdietako ordezkariekin izandako bileran ez ziren, soilik, Inñistorrako Jon Unanue eta Aiurriko Jon Ander Ubeda izan. Koldo Tapia euskaltzaleak ere parte hartu zuen, udal ordezkari

Urnietako plenora joateko deia

"Aiurri urnietarra da", horixe da gizarte eragile ezberdinen artean ezabaltzen ari den mezua. Mezu horietan, Aiurri astekariari jasotzen duen murrizketa salatzeaz gain, abenduaren 21eko plenora hurbiltzeko deia luzatzen ari dira. Era baketsuan protesta egiteko asmoa dute, 18:00tan hasita.

Urnietako herrian sortu den babes-taldea aurkezteko. Abenduaren 19ko bileran Aiurriko ordezkariak jasotako erantzunaren aurrean, Urnietako herri eragileak nola jokatu aztertzen ari dira.

"Aiurri ezinbestekotzat jotzen dugu" adierazpena Urnietan

Erreakzioa izan du Urnietako Udal gobernu-taldeak Aiurriko ekarpena nabarmen jaisteko asmoak

Erredakzioa URNIETA

Udalaren eta Aiurriaren arteko 2019-2023 hitzarmena amaitzear dela, Udal gobernu-taldeak Aiurriko diru-partida eguneratzeko eskaera atzera botatzeko asmoa agertu du. Ez hori soilik, dirulaguntza nabarmen jaitsiko

duela iradoki zien Aiurriko arduradunei. Urnietako gizarte-bizitzaren erreakzioa berehalakoa izan da. Hamazortzi elkarteak "Aiurri ezinbestekotzat jotzen dugu" adierazpena sinatu eta Urnietako udaletxean sarbidea eman diote. Adierazpenan

zera diote: "Aiurrik Urnietan komunitatea egiten laguntzen du, tokiko informazioaren ikuspegitik, udalerriko bizilagunen beharrak asetzen dituelako, askotariko arlotan: kulturean, gizarte, kirolean, aisialdian, politikan... Aiurri, protagonistak urnietarrak dira.

Udal gobernuak Aiurriko diru-partida nabarmen jaisteko asmoak kezka betetzen gaitu".

Sinatzaileak izendunak dira guztiak, elkarteak ordezkaturik. Honako hauexek dira elkarte eta mugimenduak:

- Egape Dantza Taldea.
- Poxta Zahar.
- On Bizi merkatarien elkarte.
- Sorginen taldea.
- Urnietako Bertso Eskola.
- AEK-ko irakasleak.
- Zanutuz mendi elkarte.
- Txanbolin txistulari elkarte.
- Bagara emakume feministak.
- Manttale Kultur Elkarte.
- Inñistorra euskaltzaleen biltzarra.
- Aballarri Guraso Elkarte.
- Goiburu-Xoxoka Auzo Elkarte.
- Etxeberri Auzo Elkarte.
- Urnietako Mugimendu Sozialista.

- Azkorte Guraso Elkarte.
- Elkartasun Ekimena.
- Super H elkarte.
- Denda Berri.

Elkarte gehiagok ere interes bizia erakutsi dute. Adierazpena Urnietako alkateari zuzenduta dago, bi eskaera erantsiz: "1. Erabaki asmo horrekin atzera egitea eta, aldi berean, urte luzez izoztuta dagoen dirulaguntza eguneratzea; Aiurriko lantaldeak, ahalik eta modurik duinenean lanean segi dezan; 2. Ahal bezain azkarren gaia aztertzeko, bilera bat egiteko aukera ematea".

Gabon zoriontsuak!

arritu

943 593 777

gozotegia